

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

#### Landa finkak errentan emateko lehiaketa

Alkatetza honen 2016ko abuztuaren 3ko 64 Ebazpenarekin bat etorritz, iragarki honen bidez dei egiten da ondoko landa finka hauek errentan emateko lehiaketarako:

1. Erakunde esleitzaila.

Zalduondoko Udala.

2. Kontratuaren xedea: ondoko landa finka hauek errentan ematea:

1. lotea: 347 zenbakiko finka, Mezkin bidean dagoena. Azalera: 21.094,00 m<sup>2</sup>.

2. lotea: 433, 360 eta 359 zenbakiko landa finkak, Maduran daudenak. Azalera: 31.859 m<sup>2</sup>.

3. Esleipen prozedura: prozedura irekia, esleipen irizpide batekin.

4. Lizitazioaren prezioa.

1. lotea: 170,00 euroko errenta urtean.

2. lotea: 450,00 euroko errenta urtean.

Gehiago eskainiz bakarrik hobetu ahal izango da.

5. Bermeak.

Behin betikoa: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5.

6. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

Erakundea: Zalduondoko Udala.

Telefonoa: 945 314534.

Faxa: 945 314534.

Posta elektronikoa: azalduondo@ayto.araba.eus

7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: hamabost egun, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Egun hori laneguna ez bada udalean, hurrengo lanegunean irekiko dira. Lanegunak: asteartea, asteazkena eta osteguna.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula ekonomiko-administratiboen agirian adierazten direnak.

c) Non: Udaletxean, 9:00etatik 14:00ak arte.

8. Esleitzeko irizpidea: prezioa.

Prezioa hobetzea: gehienez, 100 puntu.

9. Eskaintzak irekitzea: Zalduondoko udaletxean.

a) Data: proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo laugarren egun baliodunear.

Egun hori laneguna ez bada udalean, hurrengo lanegunera atzeratuko da.

b) Ordua: 10:30.

Zalduondo, 2016ko abuztuaren 3a

*Alkatea*

*GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE*